



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KLARINETEA

2022-02-21

Nori zuzenduak?

Graduko Klarinete interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izenematea onartuko da. Musikenek jasotako izenemate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko otsailaren 17an** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Klarinete interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezaqutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ESTELLÉS, José Luis

Sergio Barranco, Ángel Molinos eta Amaia Cipitriaren parte-hartzearekin

9:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikenek** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:00-14:00 Parte hartzaile aktiboei eskolak José Luis Estellés eta Amaia Zipitria irakaslen eskutik

14:15 Bazkaria

15:00-18:00 Musikeneren ikasleei eskolak José Luis Estellés irakaslearen eskutik

15:00-18:00 Orkestra Errepertorio eskolak (ikasle aktiboen parte-hartzearekin) Sergio Barranco irakaslearen eskutik (ordu beteko 3 talde)

15:00-18:00 Klarinete Baxu eskola orientatiboak Ángel Molinos irakaslearen eskutik. ****Eskola praktikoak jasotzeko nork bere bokilak eta kañak ekarriko ditu**

18:30-20:00 Musikeneren klarinete ikasleen emanaldia

Klarinete jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Urko Arozena Haize eta Perkusio Departamentuko buruarekin: uarozena@musikene.eus